

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

NKPEa **BERRIKUSTEK PROZESUA**

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

EMAITZEN TXOSTENA

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ATARIKOA

2017-2023 aldiko Kulturaren Plan Estrategikoaren helburuak dira, besteak beste, kultura beharrak hautematea Nafarroako Foru Komunitatean, eta, Departamentuak azken bi urtean abiatuak dituen jarduerekin batera, epe ertain eta luzeko kultura politika finkatzea, aldi berean elkartuko dituen tradizioa eta garaikidetasuna, hiri eta landa munduak, programazioa, eta kultura eta sormen sektoreen ikuspegiaren zabalkuntza eta parte-hartze prozesuen jarraipena. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak Nafarroako kultura-sektoreak balioetsiko ditu eta hurrengo urteetarako ibilbide orria sortuko du lurralde osorako. Horra zergatik eman zaion 2017tik 2023rako aurreikusitako epe hori.

2022an, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak gogoeta-prozesu bat egin du Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluarekin batera, talde eragile baten bidez, jarraian zehazten den bezala.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA


NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

METODOLOGIA

Atarikoan aipatu den bezala, 2017-2023 aldirako Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren hausnarketa-prozesua Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren zuzeneko lankidetzarekin egin da, eta Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak gidatu du. Kontseiluak berak hautatutako talde baten bidez egin da berrikuspena.

Planaren berrikuspeneren talde eragilearen (izen hori eman zaio) iritzia eta proposamenak ezagutzeko, hainbat ekintza bateratu eta indibidual egin dira, banakako hausnarketa egiteko eta taldean kontrastatzeko aukera emanen zuen prozesu baten bidez. Jarraian, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa berrikusteko prozesuan jarraitu den eskema azaltzen da.



Eskeman azaltzen den bezala, prozesua azaltzeko hasierako saio baten ondoren, talde eragileak beharrezko dokumentazio guztia jaso zuen, eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko Batzordearekin kontsultatu ahal izan zituen NKPEaren alderdi nagusiak. Lanaren lehen zati hori egin ondoren, banakako elkarrizketak egin ziren talde eragileko kide bakoitzarekin. Ondoren, foku-talde bat osatu zen elkarrizketetatik ateratako ondorioen inguruan, kontrastatzeko. Elkarrizketen laburpena 1. eranskinean dago.

Azkenik, emaitza guztiak Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren bilkuran aurkeztu ziren. Saio hori berariazko txosten batean sistematizatu zen.

Jarraian, elkarrizketen eta foku-taldearen emaitzak azalduko ditugu. Emaitza nagusien dokumentu bat ere sartu da, laburpen gisa.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ONDORIO NAGUSIAK

BALORAZIO OROKORRA

Plan Estrategikoaren balorazio orokorra **positiboa izan da, mugarri** bat markatu duelako eta lan egiteko **modu parte-hartzaile** bat hasi duelako, oso garrantzitsua dena.

Pandemiak eragin handia du gaur egun oraindik, eta, horren ondorioz, arazoak agerian gelditu dira; horrek guztiak eskatzen du NKPEa berrikustea, denboraren joanak eragindako ageriko premietatik harago. Arazoak izugarri areagotu dira.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ONDORIO NAGUSIAK

GAUR EGUNGO ERRONKAK

Oro har, NKPEak **kulturaren erronka nagusiei erantzuten die**, baina berrikuspena funtsezkoa da, pandemiak eta kulturaren bilakaerak gaur egungo garrantziarekin kontuan hartu ez ziren arazoak jarri baitituzte mahai gainean.

Errepikakorra dirudien arren, **kulturaren balioari garrantzia ematen jarraitu behar zaio**, arlo ekonomikotik harago; izan ere, garrantzitsua den arren, ez da baliorik handienekoa. Bestalde, gizartean kulturari heltzeko erronka gisa planteatu behar da hezkuntza.

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

NKPEAREN ARDARTZEN GAINEAN

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KOHESIOA, ANIZTASUNA ETA LURRALDE-DINAMIKAK

Funtsezkoa da kultura **gizartearen eta lurraldearen elementu integratzaile** gisa azpimarratzea.

Oso garrantzitsua da **kultura-eragileen lana koordinatzea** lurralde-kohesioan aurrera egiteko.

Landatartasuna berezko balio kulturalak dituen alderdi bat da, eta garrantzitsua da indartzea eta proposamen berrietara irekitzea.

Gizarte-aniztasuna oso elementu garrantzitsua da, eta Nafarroan duen bilakaera kultura ofizialean islatzen hasi behar da

Digitalizazioari buruz gogoeta egin behar da behar bezala integratzeko. Pandemiak ez du hausnarketa hori ahalbidetu.

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KOHESIOA, ANIZTASUNA ETA LURRALDE-DINAMIKAK

Profesionalek **errealitate hibrido berrietara** egokitu behar dute, eta ikertu eta ezagutza eskaini.

Lurraldean **espazio sortzaileak eta berritzaileak** sustatu beharko lirateke, Iruñearen zentraltasunetik harago.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ENPLEAGUAREN KALITATEA

Beharrezkoa da **lege-garapenean** eragiten jarraitzea (Kultura Profesionalizatzeko Legea).

Profesionalizazioaren garrantzia azpimarratu behar da, eta, horretarako, esparru estrategikotik operatiboraino lan egin behar da.

LKultura-sektoreetako hitzarmenak funtsezkoak dira kalitatezko enplegurako eta lan duinerako.

Baldintza homogeneoak ezarri behar dira **kulturaren kudeaketaren** sektorean.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

SENTSIBILIZAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA HIRUGARREN SEKTOREA

Kultura-sektoreen parte-hartzea funtsezkoa da. Kultura-kudeatzaileen parte-hartzea eta koordinazioa azpimarratu beharreko alderdia da, duen garrantziagatik.

Kulturan parte-hartzea **kontzeptualizatu behar da**, haren eremuak, itxaropenak, etab.

ISentsibilizazioa nabarmendu behar da, **hezkuntzaren eta pedagogiaren** bidez.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KULTURAREN ZEHARKAKOTASUNA ETA HIBRIDAZIO ESTRATEGIKOAK

Balio-kate tradizionala hautsi behar da, eta digitalizazioaren eragin handia izaten ari diren agertoki hibridoak geure egin behar ditugu.

Askotariko profilez eta askotariko kultura-espazioez hitz egin behar da, horietan gero eta nahasketa eta aniztasun handiagoa baitago.

Kultura-forma berriak barne hartuko dituen **hizkuntza kontzeptualizatu** behar da.

Gizarte-itzulkina duen kulturari balioa ematea.

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KULTURA ESKAINTZAREN IKUSGAITASUNA ETA ANIZTASUNA

Ikusgaitasun handiagoa eman behar zaio **kulturari**, jende gehiagorengana irits dadin, herrikoia izan dadin.

Argitaratutakoa askoz ere agerikoagoa izatea eta zabaltzea oso interesgarria da, eta gehiago iritsi behar du jendearengana.

Nafarroako kultura-eskaintza **nazioartean begiratu** beharko litzateke, adibidez, argitalpenei eta ondareari dagokienez.

Irizpide partekatuak eta parte-hartzaileak ezarri behar dira artisten katalogoak sortzeko.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KULTURA-SEKTOREAK ETA BALIO-KATEA

Beharrezkoa da **kulturaren sektoreak birpentsatzea** eta esparru estrategikoan kontzeptualizatzea.

Kultura-kontsumoaren paradigma berriek izugarri handitzen dute ekoizpen/erakusketa binomioa.

Kultura-espazioak berriz definitu behar dira, kulturaren balio-kate berriarekiko duten posizioan oinarrituta.

Argitalpenak funtsezkotzat hartu behar dira, hala ezartzen baitu Eskubide Kulturalen Legeak.

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

BESTE GAI BAZTUK

KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA - VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

KULTURAREN BALIOA

Kulturaren balioa gizartearen DNAn berean dago. Beharrezkoa da aurrekontuan ondorioak izanen dituen **kulturaren aldeko itun** bati heltzea. Gizarte-balioa funtsezkoa da.

Kulturaz eta haren balioaz hitz egiten denean, beharrezkoa da **zeri buruz ari garen kontzeptualizatzea**, hitzak esanahi asko har baititzake, eta beharrezkoa da argitzea zer adierazten duen une bakoitzean.

Kulturak gizartean duen balioak hezkuntzan du jatorria. Funtsezkoa da **hezkuntza-sisteman kultura-edukiei balioa ematea eta haiek eskaintzea**.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

AGENDA 2030

Agenda 2030 garrantzitsua eta erreferentziala da, esparru globala da, eta horretan **proiektu kulturalak beren ekarpena ikusaraztea garrantzitsua da.**

Edozein erakundek edo estrategiak kontuan hartu behar ditu **GJH**ak, eta Kulturaren Plan Estrategikoak (berrikuspena) erabat lerrokatuta egon beharko luke horiekin.

Askotan, GJHekin lotu beharrak **proiektu kulturalen esparrua mugatzen du**, eta norberaren askatasuna apur bat murrizten du prozesu sortzailean.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

NAZIOARTEKOTZEA

Arreta kanpoan, nazioartean, jarri behar da. Horretarako, laguntza eta helburu komunak behar dira. Kultura-produktua hobetzea ere badakar, kalitate handiagoa lortu nahian. Baina dagoen potentziala argi gelditu behar da.

Nafarroak oso ondare aberatsa du. Ondarearen balioa nabarmentzea eta nazioartekotzea funtsezkoak dira Nafarroan aurrera egiteko eta kulturalki garatzeko.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

LANDATARTASUNA

Kultura eta landatartasuna eskutik doaz, norberaren adierazpen kulturalak sortu baitira, eta horrek lotura emozionala sortu du leku anitzetan. Izan ere, lotura hori sustatu eta mantendu behar da jardunaren bidez.

Landa-eremua erabilera berrien gune bihurtzen ari da, eta jada ez da soilik lotzen tradizioarekin, lehen sektorearekin. Landa-eremuaren indarra baliatu behar da kulturak zeregin garrantzitsua izan dezan.

Funtsezkoa da ulertzea **Interneterako sarbideak eta eremu digitalak landa-eremua eta bere aukerak aldatu dituztela**, batez ere Nafarroan. Hemen landa-eremu gehienek sarbide onak dituzte eta lurralde-egituraketa nahiko ona dago.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ANIZTASUNA

Garrantzitsua da Plan Estrategikoaren berrikuspenean jasotzea **Nafarroako kultura-aniztasuna asko aldatu dela** eta, berez, Foru Komunitatean dagoen aniztasuna areagotu egin dela azken hamarkadetan, beste herrialde batzuetatik etorri den jendearekin (eta ez dira gutxi izan).

Udaletan egindako lana garrantzitsua izan da, errealitate sozialarekin harreman hurbilena duen eremua baitira.

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

GÉNERO BERDINTASUNA

Garrantzitsua da NKPE berriak **berdintasunaren paradigma berrien kontakizunak** bere egitea.

Oso garrantzitsua da kulturak **emakumeen lanaren** irudia proiektatzea, **esparru horretan erreferenteak izatea.**

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA

NKPEA BERRIKUSTEK PROZESUA

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2023

ERANSKINAK

1. ERANSKINA.- ELKARRIZKETA PROZESUAREN ONDORIOAK

NAFARROAKO KULTURAREN PLAN
ESTRATEGIKOAREN BERRIKUSPENEAN
EGIN DIREN ELKARRIZKETEN LABURPENA

BALORAZIO OROKORRA

Planaren balorazio orokorra oso ona da, mugarri bat izan baitzen. Ez dago zerekin alderatu, baina balorazio orokorra positiboa da. Puntu interesgarrietako bat parte-hartzearen gaia izan zen, eta hori Planaren beraren aniztasunean agerian gelditzen da.

Krisiak oso alderdi negatiboak ekarri ditu, baina, aldi berean, sektorearen erresilientzia indartu du. Gaur egungo testuingurua eta Planaren berrikuspenean une egokia dira kulturaren zenbait gai BIRPENTSATZEKO. Bidean berrikuspenean egiteko geldialdia egitea ona da.

Plan bat edukitzea mugarria izan zen; izan ere, orain arte ez zegoen planifikaziorik eta noraezean genbiltzan. Orain garrantzitsua da esperientziatik ikastea eta hobetzea.

Planak izan behar duen malgutasunaren sintoma ona da gaur egungo berrikuspen-ariketa, aldaketak etengabeak baitira eta erronkak agertzen ari baitira.

Oro har, plan ona da. Nahikoa balioesten da sektore profesionalaren parte-hartzea. Horrek horrela izaten jarraitu beharko luke, bai plan berria egitean, bai gelditzen dena eta berria ezartzean.

KULTURAREN GAUR EGUNGO ERRONKEI ERANTZUNEA

Oro har erantzuten die. Dauden ardatz guztiak beharrezkoak dira, baina baten bat falta da. Ordena-aldaketa soil batekin aski izanen litzateke.

Krisi-ondoko plan bat da, eta hartan islatzen da eta indarrean segitzen du. COVID-19ak arazoak handitu ditu, eta parekorik ez duen geldialdi bat eragin du. Geldialdia dramatikoak izan da, eta kulturaren izan dituen ondorioak ikaragarriak izan dira.

Gaiaren erdigunean kulturaren BALIOA dago, eta hori eztabaidatzen segitzen da, baina ez zaio erreparatu erabakiak hartzen dituzten pertsonen erretinari eta ez da kontuan hartu kulturatik harago.

Oro har, kulturaren erronka nagusiei erantzuten zien. Ardatzak zabalak eta nahikoak dira plan egokiagoa eginen duten ekintzez hornitu ahal izateko.

Oro har erantzuten die. Baina, berriro ere, garrantzi handia eman behar zaio kulturaren balioari. Aipamena eta erantzun politikoa behar dira.

Oso beharrezkoa da prestakuntzari eta pedagogiari are garrantzi handiagoa ematea.

Eskubide Kulturalen Legean garatutako guztiaren berri eman behar da.

Nafarroako kulturaren nazioartekotzean eragin handiagoa izan beharko litzateke. Erakundeek bultzada bat eman behar diote nazioartekotze horri. Nafarroak asko du kanpora begira eskaintzeko.

AR DATZA	ALBERDI ESTRATEGIKOAK	ALDERDI OPERATIBOAK
<p>KOHESIOA, ANIZTASUNA LURRALDE-DINAMIKAK</p> <p>ETA</p>	<p>Lurralde-koehesioaren garrantzia azpimarratzen jarraitzea, kultura-eragileen koordinazioaren bidez.</p> <p>Garrantzitsua da Nafarroan landatartasuna berez kultura-balio izugarria eta askotarikoa dela nabarmentzea.</p> <p>Nafarroak oso lerrokatuta egon behar du Europan egiten den guztiarekin. Kultura-mailan Nafarroan dagoen desberdintasunari balioa ematea, haren aniztasunean eta identitatean oinarrituta.</p> <p>Garrantzitsua da lurraldean gertatzen diren benetako inpaktuen ikuspegia eskaintzea kulturean, eta horretarako tresnak daude.</p> <p>Funtsezkoa da kulturak gizartearen elementu integratzaile gisa duen zereginari balioa ematea. Batez ere eskaintza txikia duten eta aniztasun sozial handiagoa duten herrietan. Funtsezkoa da kultura-aniztasuna adierazpen ofizialetan ikusgai izatea. Era berean, kultura eskuratzeko orduan, kalteberatasun handiena duten pertsonak integratu behar dira.</p>	<p>Garrantzitsua da Lurralde Koordinaziorako Foroa sendotzen jarraitzea; foro horretan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eragile ona da.</p> <p>Nafarroako Kultura Informazioaren Sistemak (NKIS) ematen duen datu-azterketa aprobetxatzea lurraldeak kulturean duen eragina bistaratzeko. Interesgarria litzateke sistema hobetzea, Kulturearen Behatokiaren tresna garrantzitsua izan ahal izateko.</p> <p>Informazio hori gehiago ustiatuko balitz, ekintzak diseinatzen ahalko liriteke marketinean, publikoa sortzean eta abarretan. Eta oinarrizko patroia publikoarekiko feed-back elementu gisa hartuko litzateke.</p> <p>Programazioaren eta entzulerien diagnostikoa egiterik izanen litzateke. Bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsonen (gizarte-eskubidedunak) kulturarako sarbidea izateko bonuak ezartzea.</p>

INFORMAZIOA, AZAGUTZA SORMENA ETA	<p>Profesionalek espezializazioa nagusi den egoera batera egokitu behar dute. Paradigma-aldaketa dago kulturaren kontsumoan, eta hori ikertu eta ezagutu behar da.</p> <p>DIGITALIZAZIOA benetakoa da, eta zeharka integratu behar da. Sareko lana sustatu behar da, berritzeko eta digitalizazioa integratzeko.</p> <p>Nafarroan sormen- eta berrikuntza-zentro gehiago bultzatu behar dira (planean jasotzen zen).</p> <p>Krisiak eragindakoaren gainean EZAGUTZA sortu behar da.</p>	<p>Argi eta garbi definitzea zer den digitalizazioa eta nola lagun diezaiokeen sektoreari bilakaeran eta sormenean.</p> <p>Digitalizazioari buruzko prestakuntza eman behar zaie kulturako profesionali.</p> <p>Sorkuntzarako eta sareko lanerako espazioak eta faktoriak.</p> <p>Etengabe berrikusi behar da krisiaren eragina: zer gertatu den eta zer gertatzen ari den jakin behar da.</p>
ENPLEGUAREN KALITATEA	<p>Funtsezkoa da legeria egokitzea, Kulturaren Profesionalen Legean egiten ari den bezala (Parlamentuan), eta Eskubide Kulturalen Legearen bultzada indartzen jarraitzea.</p> <p>Kulturaren PROFESIONALIZAZIOAREN alde lan egitea. Planean jasota egon behar du.</p> <p>Kultura-kudeaketaren garrantziari balioa eman beharko litzaioke.</p> <p>Beharrezkoa da enplegu-baldintzak homogeneizatzea kultura-kudeaketan.</p> <p>Beharrezkoa da gaur egun proiekturen/guneren bat izatea, hots, berrikuntza eta sormena sustatzen lagunduko duena eta gazteak mugiaraziko dituena. Gaur egungotik oso gertu egonen dena.</p>	<p>Funtsezkoa da kultura kudeatzeko hitzarmena (planak hautematen zituen aldeak homogeneizatuko lituzke). Funtsezkoa da kulturaren sektoreetan hitzarmenak sortzea.</p> <p>Kultura-kudeaketako profesionalaren profila zehaztu behar da, lanpostuen baldintzak eta balorazioak oso desberdinak baitira herrietan.</p> <p>Kontratazio-zerrenda komun bat egon beharko litzateke Nafarroa osorako, bajetarako, ordezkapenatarako eta abarretarako.</p>

<p>SENTSIBILIZAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA HIRUGARREN SEKTOREA</p>	<p>Gizarte-eredu desberdinak landu beharko lirateke, zeinetan kulturak funtsezko zeregina baitu.</p> <p>Parte-hartze, komunikazio eta koordinazio handiagoak behar dira kultura-eragileen artean, batez ere kudeatzaileen artean. Zehaztu behar da eskualderako (Nafarroarako) kultura bakarra bilatzen den edo nazioartera jauzi egin nahi den. Estrategia gehiago zehaztu behar da maila horretan.</p>	<p>Beharrezkoa da kontzeptualizatzea zer den herritarrek kulturaren parte hartzea (askotan aipatzen da planean). Definitu eta mugatu behar da (erabakietan parte hartzea, bizitza kulturalean parte hartzea, etab.).</p> <p>Informazioa emateko/parte hartzeko kanal bat sortzea toki-erakundeetako langileekin. Bi norabidekoa izan behar luke kanal horrek.</p>
<p>FINANTZAKETA</p>	<p>Oreka behar da kultura-politikaren, prozesuen eta jardueren artean.</p> <p>Kulturaren balioa berezkoa dela abiapuntutzat hartuta, hori objektibizatu behar da eta aurrekontuetan argi eta garbi islatu.</p> <p>Erakundeen egonkortasuna, hala nola Nafarroako Antzoki Sarea, urte anitzeko hitzarmenen bidez.</p> <p>Saiatu behar da MECNA gaur egungo arloetara ere bideratzen. Ondareak onura handia hartu du harengandik, baina ez du hainbeste eragiten artean, batez ere garaikidean.</p>	<p>MECNA: MECNAREN helburua zehaztea, helburu hori bideratzen ote den proiektuen hedapenera edo kalitatera. Nafarroako Dirulaguntzei buruzko Legea berrikustea, kultura-sektorea egokitu eta bideragarriagoa izan dadin. % 1,5aren afera.</p> <p>Urte anitzeko hitzarmena Nafarroako Antzoki Sarearekin.</p> <p>MECNA komunikatzea eta zabaltzea, arte garaikideari laguntzeko tresna izan dadin.</p>

<p>KULTURAREN ZEHARKAKOTASUNA ETA HIBRIDAZIO ESTRATEGIKOAK</p>	<p>Planean sartu behar da kulturak Agenda 2030ari dagokion guztian duen garrantzia. Funtsezkoa da gizarte-itzulkina duen kulturaz hitz egitea. Baliokate tradizionala haustea eta kulturaren hibridazio handienari buruz hitz egitea. Askotariko profilak eta espazioak. Espazio hori erabat funtsezkoa da. Horretan sinetsi behar dugu.</p> <p>Espazioetan formatu berriak planteatu behar dira. Edarien kontsumoa, dekorazio desberdinak eta abar. 360 graduko espazioak. Guztiaren hibridazioa.</p>	<p>Kultura-industria hutsa izatetik harago doan hizkuntza erabiltzea.</p>
---	--	---

<p>KULTURA ESKAINZAREN IKUSGAITASUNA ETA ANIZTASUNA</p>	<p>Ikusgaitasunak eta kanpaina publikoek kanporantz jo behar dute, jendearengantz. Kultura eskaintza lehiaketetan sartzen da eta, batzuetan, desegin egiten da. Bereziki Iruñean.</p> <p>Garrantzitsua da eredia ez errepikatzea, eta kontakizunarekin eta ekintzekin kultura-eredua eta -eskaintza bilatzea.</p> <p>Toki-erakundeek eta kudeatzaileek ez dute parte hartzen kultura-programen ebaluazioan eta inpaktuan. Eta programa horien diseinuan parte hartzea, abian jarri baino askoz ere lehenago.</p> <p>Estrategia argi bat egon beharko litzateke artisten katalogoen, sektoreen adierazgarritasunaren eta abarren inguruan.</p> <p>Oso beharrezkoa litzateke Nafarroako Gobernuaren Argitalpenen Funtsa askoz ere gehiago hedatzea. Nafarroari eta nazioarteari begiratzea (batez ere Latinoamerikari).</p> <p>Beharrezkoa da Nafarroako kultura-eskaintzari balioa ematea maila arkeologikoan, lehen mailakoa baita.</p>	<p>Espazio desberdinen eskaintzan kultura berritzeko eta bereizteko irizpide batzuk ezartzea. Bereziki eskaintza eta espazio gehien dituzten lekuetan.</p> <p>Arazoa da helburua beti gauza bera dela (publikoa eta zifrak).</p> <p>LANDARTE, XXI. mendeko programa bezalako programetan eragiten jarraitzea.</p> <p>Lantaldeak sortzea katalogoetarako artistak hautatzeari buruzko irizpideak ezartzeko.</p> <p>Nafarroako Kulturaren Agenda Komuna. Lankidetzarako tresna bat izanen litzateke (toki-erakundeak)</p> <p>Nafarroako Gobernuaren argitalpen garrantzitsu batzuen aurkezpenari oihartzun eta garrantzi handiagoa ematea</p>
<p>EKIPAMENDUAK: IRISGARRITASUNA ETA BALIABIDEAK</p>	<p>Irisgarritasun unibertsala sustatzea. Publiko berrietan pentsatu behar da.</p> <p>Beharrezkoa da eremuen araberako erreferentziak egotea eta nolabaiteko espezializaziorako joera izatea</p>	<p>Erreferentziako zentroekin espazio-sarea sortzea, eremuka espezializatzeko.</p> <p>Planaren baliabideen mapa eguneratzeko beharra</p>

<p>KULTURA-SEKTOREAK ETA BALIO-KATEA</p>	<p>Kulturaren sektoreak zein diren berriz pentsatu beharko litzateke. Balio-katea eta sektoreak birformulatu dira (baita eragileak ere). Hori idaztea garrantzitsua da. Ez dago European hitz egiten denarekiko egokitzapenik. Hizkera komunagoa behar dugu.</p> <p>Kultura-kontsumoaren paradigma berriek askoz gehiago zabaltzen dute katea ekoizpen/erakusketa binomioa baino. Kultura parte-hartzailea sustatzea.</p> <p>Gehiago begiratu behar zaie publikoei eta publikoak ez direnei. Ezin zaio kulturaren sektoreari soilik begiratu, etorkizunean iraunkortasunik ez badago, behintzat.</p> <p>ARGITALPENAK sartu beharko lirateke, Eskubide Kulturalen Legeak justifikatzen duen moduan (liburutegiak, museoak eta artxiboa, ondare historikoa, kultura-ekintza eta haren balio-katea dinamizatzearen barnean).</p> <p>Argitalpenei dagokienez, oso interesgarria litzateke (hedapen eta proiektzio hobea izateaz gain) gazteei zuzendutako ildo bat sortu ahal izatea.</p>	<p>Kulturaren sektoreak pandemiak sortu duen errealitatera eguneratzea (adibidez, arte eszenikoak, arte bisualak eta performatiboak, etab.).</p> <p>Funtsezko eragileak (SEDENA, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta abar) kulturaren arloan integratzea.</p> <p>Sektoreak eta espazioak berrizendatzea (ez dira gauza bera Nafarroa Arena eta beste espazio bat).</p> <p>1) gure argitalpenen zabalkundea bultzatzea; 2) lurraldetasunaren edo landatartasunaren presentzia handiagoa, toki-erakundeekin batera egindako argitalpenen bidez; 3) Nafarroako edizio-estrategia sustatzen jarraitzea. 4) Argitalpenetatik genero-estrategia bultzatzea. 5) Nafarroako gazteengana iristea argitalpen jakin batzuen bidez.</p>
---	---	---

KULTURA-ETASORMEN-INDUSTRIAK	<p>Oro har, bat dator Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoan ezarritakoarekin, eta sektorea eratzeko lanean jarraitu behar da.</p> <p>Garrantzitsua da sektorearen ikusgaitasuna sustatzea. Ekintzailtzarako oinarri bat sortu behar da.</p> <p>Oso garrantzitsua da NICDOK egiten duen guztia sartzea, kultura-industria izugarri dinamizatzen duen elementua baita.</p>	<p>ICCSren definizio argia eta barne-hartzailea ezartzea, kulturaren sektore klasikoetatik harago doana.</p>
-------------------------------------	---	--

LANDATARTASUNA	<p>Landatartasunean eta despopulatzea geldiarazteko prozesuan kulturak izan dezakeen paper aktiboa eta funtsezkoa azpimarratzea.</p> <p>Identitate berrien aniztasunera ireki behar da burua. Landa-mundua hibridatzen ari da.</p> <p>Landa-eremuaren errealitatea da ez dagoela kulturaren benetako deslokalizaziorik Iruñerriaz harago. Landa-eremuan zailtasunak daude Gobernuaren, prentsaren eta abarren babesa dutela sentitzeko.</p>
GAZTEAK	<p>Funtsezkoa da hezkuntza-eremua sartzea, gazteengan/gazteekin kultura lantzeko.</p> <p>Funtsezkoa da gazteekin lan egitea eta haien kulturaren eta kultura-kontsumoaren ikuspegia entzutea.</p> <p>Gazteen artean gero eta aniztasun handiagoa dago, eta naturaltasuna erreferente kulturalen nahasketan. Horri balioa eman behar zaio.</p>
DIGITALIZAZIOA	<p>Funtsezkoa da kulturaren sektorerako. Alderdi batzuetan, izaera instrumental hutsak argi uzten du digitalizazioaren zeregina (artxiboak, liburu zaharrak, etab.). Baina zuzeneko artearen sektoreetan (musika, arte eszenikoak, etab.), hausnarketa handia egin behar da DIGITALIZAZIOA zer den eta kulturari nola aplikatu behar zaion jakiteko.</p> <p>DIGITALIZAZIOA benetakoa da, eta zeharka integratu behar da.</p> <p>Digitalizazioaren erronkan, beharrezkoa da publikoa sortzea eta publikoak kultura kontsumitzea. Modu isolatu batean egiten da egun, eta funtsezkoa da maila horretan pentsatzea.</p>